



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados
Acta de Pleno

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak
Udalbatzarraren akta

AYT/PLE/7/2023

ORG1710FD

Código de validación/Balidazio kodea
211E2F504G072M580M8E



**ERMUA HIRIKO UDALA ERATU ETA
ALKATEA HAUTATZEKO 2023KO
EKAINAREN 17AN EGINIKO
BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA SESIÓN DE CONSTITUCIÓN
DEL AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE
ERMUA Y ELECCIÓN DE ALCALDE/SA,
CELEBRADA EL DÍA 17 DE JUNIO DE 2023**

Asistentes/Etorritakoak

JUAN CARLOS ABASCAL CANDÁS
BEATRIZ GÁMIZ MATA
RICARDO MARTÍN LÓPEZ
ROSA MARÍA CID SEARA
JOSE MANUEL LÓPEZ CONDE
MIGUEL LEDESMA PIÑEIRO
JOL GUIASOLA GARAY
ARRITOKIETA ARAIZTEGI ARRIZABALAGA
MIKEL CONTERO VIDAL
PAUL YARZA AGURREGOMEZCORTA
JOANNA DÍAZ BENITO
ASIER IBAIBARRIAGA APOITA
IDOYA GOICOECHEA GURIDI
JULEN DOMÍNGUEZ SÁNCHEZ
ALBERTO GARCIA ABAD SÁNCHEZ
FRANCISCO JAVIER SÁNCHEZ GÓMEZ
MÓNICA MARTÍN-LORENTE RABANETE

SECRETARIO/IDAZKARIA

DANIEL SALAZAR IRUSTA

Udaletxeko bilkura-aretoan, ekainaren 17an, hamarrak direnean, ekainaren 13ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikuluan Toki-erakundeen Antolakuntza, Jarduera eta Lege-erregimenari buruzko Araudiaren 37. artikuluan eta Udal Organoen Erregelamenduko 38.ean ezarritakoari jarraituz, goian aipaturiko zinegotziak lehen deialdian bildu dira Udala eratu eta alkatea hautatzeko. Aldez aurretik bakoitzak bere egiaztatutuna aurkeztu eta nortasuna

En el salón de sesiones de la Casa Consistorial, a las diez horas del día diecisiete de Junio de dos mil diecinueve, en primera convocatoria, en cumplimiento de lo establecido en los artículos 195 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio; 37 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales; y 38 del Reglamento orgánico propio de la Corporación, y a los efectos de celebrar sesión constitutiva del Ayuntamiento y elección de Alcalde/sa, se

benetakotu ondoren, bateraezintasun, jarduera eta ondare-ondasunen aitortpenak aurkeztu izana egiaztatu dute Udalkideen Interesen Erregistroan inskribatuak izateko.

Adin-mahaia Idoya Goicoechea Guridi eta Joanna Díaz Benitok osatuta dago, eurak direlako Durango Eskualdeko Hauteskunde-batzordetik jasotako egiaztagirien arabera, zinegotzi nagusiena eta gazteena. Nagusiena Idoya Goicoechea Guridik denez, bera izango da bilkura-buru, idazkari-lanetan udal idazkari den Daniel Salazar Irustak jardungo duela.

Idazkariak bilera hasteko behar besteko quoruma dagoela frogatu ondoren, adin-mahaiaren buruak bilkurari hasiera eman dio eta publikoa dela adierazi du.

Ondoren, bertaratuek karguaren betebeharrak fidelki eta Erregearekiko leialtasunez beteko dituztela eta Konstituzioa, Estatuaren oinarritzko araua izaki, gorde eta gordearaziko dutela zin egin dute. Aipaturiko promesa zinegotzi bakoitzak pertsonalki egin du gazteleraz zein euskaraz, adin-mahaiaren idazkaria lekuko dela.

Bilkurara bertaratu diren zinegotziek, karguaz jabetzeko behar diren izapideak bete ondoren, adin-mahaiak udal berria eratutzat eman du.

Jarraian alkatea hautatzeari ekin zaio

reúnen los/as concejales/as electos/as antes citados/as, quienes han presentado previamente sus credenciales, acreditado su identidad y justificado la presentación de las oportunas declaraciones de causas de incompatibilidad, actividades, y bienes patrimoniales, a efectos de su inscripción en el Registro de Intereses de los/as miembros de la Corporación.

Queda formada la Mesa de Edad, integrada por Idoya Goicoechea Guridi y Joanna Díaz Benito, concejalas electas de mayor y menor edad, respectivamente, según se desprende de las certificaciones recibidas de la Junta Electoral de Zona de Durango. Preside la sesión Idoya Goicoechea Guridi por ser la concejala de mayor edad, actuando de Secretario el que lo es de la Corporación, Daniel Salazar Irusta.

Una vez comprobada por el Secretario la existencia de quórum necesario para poder iniciar la sesión, el Presidente de la Mesa de Edad abre la misma y la declara pública.

A continuación, la Secretaria de la Mesa de Edad toma a los/as asistentes juramento o promesa, que es prestado personalmente, bien en castellano, bien en euskera, por cada concejal/a del Ayuntamiento de Ermua, de cumplir fielmente las obligaciones del cargo de concejal/a con lealtad al Rey y de guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del estado.

Cumplidos los trámites legales de toma de posesión de sus cargos de concejal/a, de los/as electos/as presentes en la sesión, la Mesa declara legalmente constituida la nueva Corporación.

Acto seguido se procede a la



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acta de Pleno

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren akta

AYT/PLE/7/2023

ORG1710FD

Código de validación/*Balidazio kodea*
211E2F504G072M580M8E



eta, horretarako, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikuluan ezarritakoari jarraituz, alkategai dira alderdi bakoitzaren zerrendaburu izan diren ondorengo zinegotziak:

elección de Alcalde/sa, a cuyo efecto, de acuerdo con la normativa establecida en el artículo 196 de la citada Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, se proclaman candidatos/as para la Alcaldía a los/as concejales/as que, encabezando sus respectivas listas, seguidamente se relacionan.

Nombre del/de la candidato(a) <i>/Alkategaiaren izena</i>	Grupo político/ <i>Alderdi politikoa</i>	Votos Obtenidos/ <i>Lortutako botoak</i>
Juan Carlos Abascal Candás	PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI-EUSKADIKO EZKERA (PSOE)	2.256
Jol Gisasola Garai	EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO	1.396
Paul Yarza Aguirregomezcorra	EUSKAL HERRIA BILDU	1.792
Julen Domínguez Sánchez	ELKARREKIN PODEMOS-EZKER ANITZA/IU-ALIZANZA VERDE	1.033
Francisco Javier Sánchez Gómez	PARTIDO POPULAR	802

Berlaratu diren zinegotziek isilpeko boto-txartel bidez eman dute botoa eta, zenbaketa egin ondoren, emaitza ondorengo izan da.

Los/as concejales/as asistentes proceden a la votación por papeleta secreta y, efectuado el recuento de los votos emitidos, se obtiene el resultado siguiente.

Nombre del/de la candidato(a)/ <i>Alkategaiaren izena</i>	Votos válidos/ <i>Baliodun botuak</i>
Juan Carlos Abascal Candás	9
Paul Yarza Aguirregomezcorra	4
Jol Salvador Gisasola Garai	-
Julen Domínguez Sánchez	2
Francisco Javier Sánchez Gómez	2

GUZTIRA EMANDAKO BOTOAK 17

TOTAL VOTOS EMITIDOS 17

Zinegotzietako batek ere botoen gehiengo osoa lortu ez duenez, Alkate aldarrikatutakoa Juan Carlos Abascal Candás hautagaia izan da, bera delako udal hauteskundeetan boto gehien lortu duen zerrendaren buru. Adin-mahaiaren buruak izendapena onartzen duen ala ez adierazteko eskatu dio, eta hark baietz erantzun duenez, alkate aldarrikatua izan da. Bere karguaz momentuan jabetu da, baina lehenago alkate karguaren betebeharrak fidelki eta Erregearenganako leialtasunez beteko dituela, eta Konstituzioa, Estatuaren oinarritzko araua, gorde eta gordearaziko duela zin egin du.

Udala eratu ondoren, Juan Carlos Abascal Candás alkateak hitza hartu eta, udalkideei mintzatuz, ondorengo esan du: "Egun on eta ongi etorri bilkura honetan gurekin zaudeten guztioi.

Niretzat harro egoteko arrazoi da Ermuko alkate izatea. Espero eta desio dut jaio ikusi ninduen herriak merezi duen mailan egotea. Konpromisoa hartzen dut herriari dudan onena emateko, nire denbora eskaintzeko, egiten dudan guztian ilusioa ipintzeko, ahaleginak egiteko eta Ermuaren alde lanean jarraitzeko. Harro nago herri honetaz, non aniztasuna aktibo nagusi den, eta bizilagunak elkarbizitzaren eta ezbeharrari aurre egiteko ahalegin eta lanaren eredu diren. Guztiz harro nago ermuarra izateaz eta Ermuan bizitzeaz.

Gaur guztiz garrantzitsuak diren baloreetan hezi ninduten nire gurasoek, eta eskerrak ematen dizkiet horregatik: elkartasunean, berdintasunean, zintzotasunean, umiltasunean, ahaleginean,

No habiendo obtenido la mayoría absoluta de los votos ninguno de los/as concejales/as, el/la candidato/a Juan Carlos Abascal Candás, es proclamado Alcalde, ya que encabeza la lista más votada en las elecciones municipales y es requerido por la Presidenta de la Mesa de Edad para que manifieste si acepta o no el nombramiento y, expresando su aceptación es proclamado Alcalde, tomando inmediatamente posesión de su cargo, previo juramento o promesa prestada personalmente, de cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Alcalde con lealtad al Rey y de guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del estado.

Constituida la Corporación, el Alcalde Juan Carlos Abascal Candás interviene y en su alocución y dirigiéndose a los/as corporativos ha dicho lo siguiente: 'Buenos días y bienvenidos a todas y todos los presentes que hoy nos acompañáis en esta sesión.

Es para mi un orgullo ser Alcalde de Ermua y espero y deseo estar a la altura de un municipio que me vio nacer. Me comprometo a dar lo mejor de mi mismo, mi tiempo, ilusión y esfuerzo en seguir trabajando por Ermua. Me siento orgulloso de un pueblo en donde la pluralidad y la diversidad son su principal activo y donde los vecinos y vecinas de Ermua constituyen un ejemplo de convivencia, de esfuerzo y trabajo ante la adversidad. Me siento muy orgulloso de ser y de vivir en Ermua.

Fui educado, y por ello se lo agradezco profundamente a mi padre y a mi madre, en valores que creo que son absolutamente relevantes en los tiempos que corren y que son la solidaridad, la igualdad, la honestidad,



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acta de Pleno

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren akta

AYT/PLE/7/2023

ORG1710FD

Código de validación/Balidazio kodea

211E2F504G072M580M8E



lanean, hurkoarekiko eta, bereziki, ezberdinarekiko errespetuan, ingurumenarekiko errespetuan, eta enplegua, bizi-kalitatea, berdintasuna eta elkarbizitza nagusi izan beharko luketen etorkizun batean pentsatuz. Balore horiek gure gobernu-ekintzaren oinarritzko osagai bilakatu behar dira, guztiontzat izan behar duen gobernu-ekintza, diziplina anitzeko gizarte batean, non gutariko bakoitzak ezberdin pentsatu, lehentasun diferenteak eduki eta, antzera pentsatu arren ere, arazoak modu ezberdinean konponduko lituzkeen.

Iritzi, pentsamendu edota jokabide ezberdin horiek gizarte konplexua eratzen dute eta ez da egia, zorionez! guztiok berdin pentsatzen dugun osotasun baten zati garenik.

Akordioak bilatzea izan behar da gure helburua, nahiz eta erraza ez den, eta horrek epe luzerako estrategia eskatzen du, norantz jo nahi dugun jakitea, gure asmo batzuetan amore ematea eta pentsamolde irekia izatea, guk pentsatzen duguna pentsatzen ez duenarekin enpatia erakutsiz, baina ariketa hori guztion betebeharra da.

Harro nago, bai, historian zehar hobetzeko eta birsortzeko gai izan den herri honetako hiritar izateaz,

1794ko abuztuan frantziarren inbasioa zela-eta Konbentzioko gerran erre eta txikitu zutenean, altxatzeko gai izan zena;

Gerra Zibilean bere historia idatzia zati handi bat galdu zuenean beriro ere

la humildad, el esfuerzo, el trabajo, el respeto al prójimo, pero sobretudo al diferente, el respeto al medioambiente y pensando en nuestro futuro con empleo, calidad de vida, igualdad y en convivencia. Valores que deben convertirse en elementos esenciales de nuestra acción de gobierno. Una acción de gobierno para todos y todas, en una sociedad multidisciplinar donde todos y cada uno de nosotros piensa de manera distinta, tiene diferentes prioridades y aunque piense de manera parecida, seguro que articularía de manera distinta las acciones para la solución de las problemáticas.

Esa diferencia de pareceres, pensamientos o maneras de actuar dibujan una sociedad compleja donde no es cierto que todos formemos parte, afortunadamente, de un todo que piensa de igual manera.

La búsqueda de acuerdos debe ser nuestro objetivo, para nada fácil, y exige tener estrategia a largo plazo, hacia donde queremos ir, saber ceder a parte de nuestras pretensiones y tener una mentalidad abierta que empatice con el que no piensa exactamente lo mismo que nosotros, pero este es un ejercicio y una obligación para todos y todas.

Me siento orgulloso de pertenecer a un municipio que ha sido capaz de superarse y de reinventarse a lo largo de la historia.

Que fue capaz de levantarse cuando fue quemada y arrasada durante la guerra de la convención en agosto de 1794 con motivo de la invasión francesa,

Que fue capaz de levantarse cuando perdió una buena parte de su

altxatzeko gauza izan zena;

80. urteetan krisialdi ekonomiko handia gairatzeko gauza izan zena, gure burdinola-industri ehunaren zati handi bat lurreratu zitzaigunean, %25eko langabezia tasa ekarriz;

ETArri ezetz esateko eta terrorismoaren kontra bere ahotsa altxatzeko prest agertu zena, askatasun eta duintasunaren alde borrokatuz.

Gaur gure erronka etorkizuna eta ondorengo belaunaldia eraikitzen jarraitzea da.

Duela lau urte esan nuen bezala, eta lau urte hauetan gertatutakoak halaxe erakusten du, gaur aldaketa gobernatu behar dugu, zeren hiritar eta arduradun politiko legez egun bizi dugun egoera (ikuspuntu orotatik: ekonomikoki, sozialki, laboralki, teknologikoki...) zerbaitek definitzen badu, gertatzen ari diren aldaketa handiak dira. Horrek arrisku eta ziurgabetasun gehiago sortzen du, baina bai eta aukera handiak ere.

Ikuspuntu politikotik beldurrak eta zalantzak sortzen ditu, eta horrek gertatzen ari dena ulertzea eta horretara gokitzea eskatzen digu guztioi, norbanako eta politikari moduan, alderdi eta erakunde publiko moduan, aldaketa handi bat bizi dugulako, garai aldaketa bat.

Garai aldaketa horren ondorioz, talde-lanetik eta zeharkakotasunetik heldu beharra daukagu erronka garrantzitsu hauei:

- *Gure hurrengo belaunaldiei planeta hobea uztea.*
- *Benetako berdintasun eraginkorra*

historia escrita durante la guerra civil.

Que fue capaz de superar una gran crisis económica en los años 80 donde se nos cayó buena parte de nuestro tejido industrial de forja originándonos un 25 % de desempleo.

Y Que fue capaz de levantar su voz diciéndole no a ETA, luchando por la libertad y la dignidad frente al terrorismo.

Hoy el gran reto es seguir construyendo nuestro futuro y el de nuestras generaciones venideras.

Como ya dije hace cuatro años y los hechos y acontecimientos de estos cuatro años así lo atestiguan tenemos que seguir gobernando el cambio porque si algo define el escenario que vivimos como ciudadanos y como responsables políticos es que se están produciendo grandes cambios desde casi todas las perspectivas: económicas, sociales, laborales, tecnológicas, lo que aumenta la generación de riesgos e incertidumbres pero también oportunidades.

Desde el punto de vista político genera miedos e incertidumbres que nos exigen a todos nosotros/ as entender lo que está pasando y adaptarnos, como personas individuales y como políticos, como partidos y como instituciones públicas, porque vivimos un gran cambio, un cambio de época.

Un cambio de época que nos obliga a abordar desde el trabajo en equipo y desde la transversalidad retos tan relevantes como son:

- Dejar un planeta mejor a nuestras generaciones venideras.
- La igualdad efectiva y real,



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acta de Pleno

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren akta

AYT/PLE/7/2023

ORG1710FD

Código de validación/Balidazio kodea
211E2F504G072M580M8E



lortzea.

- Digitalizazioa.
- Biztanleriaren zahartzea.
- Gobernu ona
- Eta abar luze bat.

Beraz, estrategia eduki beharra dago aldaketa hori bideratzeko, berrikuntza-estrategia bat horrenbeste aldaketa nolabaiteko metodologiaz kudeatzeko (Zientzia eta Berrikuntzaren Hiria saria).

ESTRATEGIA HONEN OSAGAIK GARRANTZTSUENA PERTSONAK DIRA.

- *Pertsonak gidatzen dituzten taldeekin, haiengandik hoherena lortzen dutela, motibatuz, haztera bultzatuz, eta pertsonak hazten diren heinean taldeak ere hazi egiten dira, eta horiekin batera antolakundea eta gizartea bera. Horrek guztiak KULTURA ALDAKETA exijitzen du antolakundearen egitura osoan, BELDURRAK, LARRITASUNAK eta EROSOTASUN EGOERAK AUKERA BIHURTUZ, LEHIAKORTASUN TEKNIKOA LANDUZ, LEHIAKORTASUN TEKNIKORIK GABE EZ BAITAGO BERRIKUNTZARIK. Horregatik jarrera positiboak behar dira, bizitzan zehar ikasiz joatea eta hobetzeko ilusioa.*
- *Politikaren eta erakundearen izen ona, ongi irabazia, galtzeko zorian dagoenean garrantzitsua da publikotasunaren balioa azpimarratzea; berreskura dezagun hirritaren konfiantza EPE LUZERAKO ESTRATEGIAZ, GOBERNU ONEZ, HIRITARRAK PARTAIDE EGINEZ ETA GARDENTASUNEZ.*

- La digitalización.
- El Envejecimiento
- El buen gobierno
- Y un largo etc

Por ello es preciso tener una estrategia para el cambio, una estrategia de innovación para gestionar tantos cambios con cierto método (premio ciudad de la ciencia y la innovación).

LO MAS IMPORTANTE DE ESTA ESTRATEGIA SON LAS PERSONAS:

- Con equipos que lideran personas y que consiguen lo mejor de ellas, motivándolas, haciendo con ello que crezcan y con ello los equipos, con ello la organización y con ello la sociedad. Todo ello exige un **CAMBIO CULTURAL**, sustituyendo **LOS MIEDOS, ANGUSTIAS Y ESTADOS DE CONFORT POR OPORTUNIDADES DE MEJORA. TRABAJANDO LA COMPETENCIA TECNICA. SIN COMPETENCIA TÉCNICA NO HAY INNOVACIÓN.** Por ello son necesarias actitudes positivas, aprendizaje a lo largo de toda la vida e ilusión por mejorar.
- Es importante en un clima de descrédito hacia la política y las instituciones bien ganadas a pulso, que pongamos en valor lo público, recuperemos la confianza de la ciudadanía con **ESTRATEGIA A LARGO PLAZO, BUEN GOBIERNO, HACIENDO PARTICIPE A LOS CIUDADANOS Y CON TRANSPARENCIA.**

- *Ekonomia kontuetan, dagoen industri ehunari laguntzen jarraitu nahi dut:*
 - AIC eta BPTD (erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzak).
 - EKINTZAILETZA-TALENTUA ERAKARTZEA
 - INDUSTRIA-LURRA
 - ENPLEGU-PLANAK
 - HLKP
 - ZUNTZ OPTIKOA

4.0 industriari ere bai, enpresa teknologikoak, berritzaileak edota hiria zein Udala produktu berriak (eremu soziosanitarioa, smart grids, sensorica) probatzeko laborategi izan dadin, erabakiak hobeto hartzen lagunduko duten datuak lortzeko, ekonomia digitala, big data eta, azken finean, digitalizazioaren alde, baina inor atzean gera ez dadin eta eten digitala saihesteko lan eginez.

- *Gizarte-gaietan lehentasuna izango du zailtasun gehien duten haiei kasu egitea, krisialdian dauden familiei lagunduko dieten programen bitartez eta zerbitzu-zorro berria eskainiz.*

Iraganean ere eraldatu genuen hiria, burdinola zaharkitu eta lur kutsatu eta zikineko hiria, etxebizitza babestu, aparkaleku, plaza, parke kirolgune eta kulturgunedun hiri bilakatuz. Orain, gure Ermua hau pertsonentzako hiri bihurtzen jarraitzea dagokigu, pertsonen beraien eskutik, zuek guztiok,

- En materia económica quiero seguir apoyando al tejido industrial existente:
 - AIC Y BPTD (COLABORACIÓN PÚBLICO PRIVADO)
 - EMPRENDIMIENTO- ATRACCIÓN TALENTO
 - SUELOS INDUSTRIALES
 - PLANES DE EMPLEO
 - PCPI
 - FIBRA ÓPTICA

Ayudando a la industria 4.0, atrayendo empresas tecnológicas, innovadoras, o que permita que la Ciudad o el Ayuntamiento sea un laboratorio de prueba de nuevos productos (campo sociosanitario, smart grids, sensorica para obtener datos que permitan la mejora en la toma de decisiones, economía digital, big data y en definitiva por la digitalización pero trabajando para que nadie se quede atrás y trabajando para evitar la brecha digital.

- En materia social, la atención a las personas con mayores dificultades seguirá siendo una de nuestras prioridades, a través de programas que ayuden a las familias en crisis y construyendo la nueva cartera de servicios.

Ya en el pasado transformamos la ciudad, de una ciudad con forjas obsoletas, suelos contaminados y sucios a una ciudad con viviendas protegidas, aparcamientos, plazas, parques, espacios deportivos, culturales. Ahora toca seguir transformando nuestro



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acta de Pleno

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren akta

AYT/PLE/7/2023

ORG1710FD

Código de validación/Balidazio kodea
211E2F504G072M580M8E



*Ermua izena duen etxe handi honen
protagonistak zaretenok, aintzat hartuta.
IRISGARRITASUNA eta
MUGIKORTASUNA HOBETZEA.*

*Etxebizitza-politika berriekin ere aurrera
egingo dugu, tradiziozko etxebizitza libre
eta babestutakoez gain, alokairuan hartu
ahal izango diren babestutako
apartamenduak sustatu ahal izan
ditzagun, etxebizitza eskuratzeko
zailtasun gehien duten pertsonentzat
(adineko pertsonak, gazteak...) askoz
ere egokiagoak direnak.*

*Asko dira, beraz, erronkak eta
desafioak, eta hobe da ilusioz aurre egitea,
erabakigarritasunez, elkar hartuta, aldatzeko
beldurra gaindituta eta bakardadeak eta
“babes dezala bakoitzak bere burua” ideiak
ematen duten larritasuna alde batera utzita.*

*Jakitera ematen dizuet gaurtik bertatik
aurrera enpresari, sindikatu, kirol elkarte,
kultur eta gizarte taldeekin bilduko naizela;
auzoetara joango naiz haien lehentasunak
eta beharrianak ezagutzera. Denei entzun
behar diet guztiok elkar hartuta proiektu berri
bati ekiteko.*

*Badugu SAIHESBIDEAREN zati bat,
eta Gipuzkoa eta Bizkaia Etorbideko
bizilagunek onura handiak ateratzen ari
zaizkio dagoeneko, zuen guztien.*

*Ermuko herritarren, ahaleginari eta
borrokari esker lortutakoa.*

*Gure lehentasunetako bat Ermuko
saihesbidea amaitzea da, Urtia eta
Goitondoko faseak azkenduz, ezinbestekoa
baita Harrobitik, Seigarren Mendeurrenetik
eta Zeharkaletik kamioiak igaro ez daitezen,*

Ermua en un municipio para las
personas de la mano de esas personas
teniendo en cuenta a todos vosotros/as
que sois los protagonistas de este Hogar
que se llama Ermua.

MEJORANDO LA ACCESIBILIDAD, LA
MOVILIDAD,

Y con nuevas políticas de vivienda donde
además de los modelos tradicionales de
vivienda libre y protegida podamos
impulsar apartamentos en alquiler
protegido muchos más adecuados para
aquellas personas con mayores
dificultades para acceder al mercado de
la vivienda (personas mayores, jóvenes).

Son por tanto muchos los desafíos y
los retos que tenemos que abordar y es
mucho mejor abordarlos con ilusión, con
predeterminación, juntos, venciendo el
miedo al cambio, la angustia de la soledad y
el sálvese quien pueda.

Ya anuncio que voy a seguir estando
con empresarios, sindicatos, clubs
deportivos, colectivos culturales y sociales.
Voy a seguir visitando los barrios para
conocer sus principales prioridades y
necesidades. Quiero escucharles para
seguir impulsando un nuevo proyecto todos
juntos.

Tenemos una parte de la VARIANTE,
de la cual ya se están beneficiando
significativamente los vecinos/as de Avenida
de Guipuzcoa y de Bizkaia.

Una variante que ha sido gracias al
esfuerzo y la lucha de todos vosotros, de los
vecinos y vecinas de Ermua.

Necesitamos y seguiremos trabajando
como una de nuestras prioridades por la
finalización de la Variante de Ermua con la
finalización de las fases de Urtía y Goitondo,
imprescindibles para eliminar el paso de

egun gure kaleak errepide baitira, seme-alaben eta aitona-amonen segurtasuna arriskuan jartzen direla. Lanean jarraituko dugu airearen kalitatea, zaratak, bibrazioak hobetzeko, bai eta gure enpresen lehiakortasuna hobetzeko ere, azken finean, saihezbidea ezinbestekoa baita gure hiri-agenda eta mugikortasun-plana bultzatzen jarraitzeko. Hitz ematen dut lanean jarraituko dudala saihezbidea hasi eta amai dezala Bizkaiko Foru Aldundiari exijitzeko.

Eskerrak ematen dizkizuet zuetako bat eta bakoitzari, udal zinegotzioi, Ermuko herriaren alde lanean ematen duzuen denbora eta dedikazioagatik, nahiz eta erraza ez den, eta elkarrekin lan egiten jarraitzera gonbidatzen zaituztet, adostasunez eta desadostasunez, baina beti ere gure herritarrentzat hoberena zer den pentsatuz.

Eskerrak eman eta aitortu nahi diot Ermuko herriari historian zehar erakutsi duen gainditze-espirtuagatik, bere ulerkortasunagatik, egin dituen ekarpen guztiengatik. Aldez aurretik barkamena eskatzen diot behar bezala egingo ez ditudan gauza guztiengatik, eta bere konpromisoa eskatu behar diot berriro ere, nahiz eta inolako zalantzarik ez dutan, guztion artean herri jasangarriagoa, solidarioagoa erakintzen laguntzeko, non elkarbizitzak protagonista nagusi izaten jarraituko duen.

Horregatik, ba, denok bat eginda lan egitera gonbidatzen zaituztet.

Mila esker.

camiones por la Cantera, Sexto Centenario y Zeharkale, que ha convertido nuestras calles en carreteras, poniendo en peligro la seguridad de nuestros hijos/as, de nuestros abuelos. Seguiremos trabajando también por la mejora de la calidad del aire, los ruidos, las vibraciones, la mejora de la competitividad de nuestras empresas, que es, en definitiva, imprescindible para seguir impulsando nuestra agenda urbana y nuestro plan de movilidad. Me comprometo a seguir trabajando por exigir su inicio y su finalización a la Diputación Foral de Bizkaia.

Quiero agradecer a cada uno de vosotros y vosotras, a los concejales del Ayuntamiento, vuestro tiempo, dedicación en una labor para nada sencilla de trabajar por el pueblo de Ermua y quiero haceros la invitación para seguir trabajando juntos, con acuerdos, con desacuerdos pero pensando en lo mejor para nuestros ciudadanos.

Quiero agradecer y reconocer al pueblo de Ermua su espíritu de superación a lo largo de la historia, su comprensión, sus aportaciones. Quiero pedirles disculpas por anticipado en aquello que no sepa estar a la altura, y me gustaría pedirles, una vez más, su compromiso, del que no tengo ninguna duda, para poder construir entre todos un municipio más sostenible, más solidario, en el que la convivencia sea su principal protagonista.

Por ello quiero haceros esta invitación a trabajar todos juntos.

Muchas gracias.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

**Sesiones de órganos de gobierno colegiados
Acta de Pleno**

***Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak
Udalbatzarraren akta***

AYT/PLE/7/2023

ORG1710FD

Código de validación/*Balidazio kodea*

211E2F504G072M580M8E



*Akta honek sei orri dauzka alde bietatik
idatzita eta 1etik 11ra zenbakituta.*

Consta esta acta de seis folios,
escritos por ambas caras, numeradas del 1
al 11.